

Buruketak

1. Gaur, egunero bezala, kalera atera naiz paseo bat ematera. Etxe ondoko lorategian, 12 lore berde, 16 hori eta 6 gorri ikusi ditut. Zenbat lore ikusi ditut guztira?



2. Gaur nire lagunekin bideo-deia egin dut. Hasieran 24 ginen baina, gero 16k alde egin dute. Zenbat geratu gara bideo-deian?



3. Eskulan bat egin dut botoiak erabiliz. Poltsa batean 57 botoi nituen eta eskulana egiteko 23 erabili ditut. Zenbat botoi ditut soberan hurrengo eskulan bat egin ahal izateko?



4. Nire amak 35 urte ditu eta aitak 40. Zenbat urte dituzte bien artean?



5. Gaur asteazkena da, igandean amamaren urteak direla esan didate. Zenbat egun falta dira bere urteguna izateko?

